HITZA

ASTEARTEA, 2025EKO UZTAILAREN 15A
XXII. urtea | 4.379. zenbakia |

www.goierri.hitza.eus

GOIERRI

Eguraldiak baldintzatutako Ehunmilak trilogian, lehia bizia eta giro ederra

● Gerrikaetxebarria eta Soler garaile Ehunmilak ultra trailean.

● Dorronsoro bigarren helmugaratu zen, lehia estuaren ondoren.

● Mikel Intsausti eta Aitor Zunzunegi G2Hko podiumean.

● Errekorrak ezarri dituzte Marimurumendi maratoian.

BEASAIN, 2-5



Ezkerretik eskuinera, Maider Unanue aramarra (hirugarrena), Ainhoa Intxausti segurarra (irabazlea) eta Alba Loras (bigarrena), Marimurumendi probako helmugan. AIMAR MAIZ

Ordiziako udal talde guztietako bozeramaileen batzordean adostuta, «onartezintzat» jo ditu udalak igandeko gertakariak

ORDIZIA, 7





GOIERRIKO HITZA
2025eko uztailaren 15a, asteartea

Lehia bizia eta antolakuntza eredugarria eguraldiaren kontra

● Eguraldiak baldintzatutako Ehunmilak izan da.

● 02:00ak pasata iritsi zen Gerrikaetxebarria probaren irabazlea.

● Emakumeen artean Maria Victoria Soler izan da irabazlea.

Ariane Vierbücher



Ehunmilak lasterketaren irteera, larunbatean, 11:00etan. ARIANE VIERBÜCHER

BEASAIN— Ehunmilak ez da lasterketa soil bat. Ehunmilak esperientzia bat da: mendiaren bihotzean barrena doan abentura, egunsentiak eta gau ilunak oinetan daramatzaten korrikalari ausartak, eta guztia posible egiten duen antolakuntza. Aurtengo edizioa, hamaulagarrena izan dena, eguraldiak baldintzatua izan da, baina hala eta guztiz ere -edo agian horrexegatik- antolakuntzaren maila eta erabakiak hartzeko gaitasuna inoiz baino nabarmenago geratu dira.

Ostegunean, Ehunmilak trilogia hasteko 24 ordu falta zirela, argi zegoen eguraldiak ez zuela lan erraza jarriko. Baldintza metereologiko zailak zirela-eta, ordutegi eta ibilbideetan moldaketak egin behar izan ziren. Hala ere, antolakuntzak ezin hobeto asmatu zuen: segurtasuna lehenetsi zuen beti, baina ikusgarritasuna eta lehiaren xarma galdu gabe. Beste behin ere, Ehunmilakeko makina erraldoia -boluntarioak, laguntzaileak, antolatzaileak- erakutsi zuen zertarako gai den. Zeruak eguraldiaren txapela jantzi bazuen ere, antolakuntzak ere berea irabazi zuen: maisutasunez jokatu, erabaki zailak hartu eta lasterketa aurrera ateratzea lortu zuen.

Ander, Unai eta Fidel

Kirol arloan, lasterketak ez zuen hutsik egin ordutegian eta distantzian aldaketak eginda ere: ikusgarritasuna, emozioa eta errespetuzko lehia izan ziren nagusi. Larunbatean 11:00etan abiatuta, helmugan lehena Ander Gerrikaetxebarria zornotzarra izan zen. 15:04:06 denbora behar izan zuen 125 kilometroko ibilbidea osatzeko. Bere azken kilometroetako erakustaldia aho zabalik uzteko modukoa izan zen. Indar izugarriz egin zuen azken zatia, eta Estanda lantegi inguruan, ordura arte lasterketaren buruan zihoan Unai Dorronsoro beasaindarra atzean utzi, eta lehena jarri zen, jada gelditu gabe. Helmugan, zaletuen ohiko zalapartarik gabe, baina etxekoen eta lagunen berotasunarekin, goizaldeko 02:00ak pasata gainditu zuen helmuga.

Bigarren sailkatua, Unai Dorronsoro beasaindarra izan zen (15:05:55). Ikusgarria izan zen bere lasterketa. Ibilbidea etxean egiteak ematen duen motibazioarekin aritu zen, eta postu garrantzitsua lortu zuen, irribarre zabalarekin. Lasterketaren zati handiena lehenengo postuan egin zuen. «Oso-oso pozik nago, ikaragarri gozatu dut, eta Ander oso indartsu ibili da», adierazi zuen eskertuta eta harro helmuga gainditu berritan.

Fidel Fernandez (15:41:22) iazko irabazleak ere eman zuen zeresana lasterketan, eta gaueko podiuma osatzea lortu zuen. Lasterketako lider zela igaro zuen Tolosa, eta aurreneko postuari eustea lortu zuen denbora luzean zehar, Lizarrustiraino. Gutxika-gutxika atzean geratu zen, eta azkenerako, ezin izan zuen iazko postu bera lortu.

Hiru gizon hauen arteko borrokak Ehunmilaken espiritua islatu zuen: lehiakortasuna, laguntasuna eta mendiarekiko maitasuna.

Maria, Eva eta Cristina

Emakumezkoetan, denbora tarteak handiagoak izan ziren. Chelo Velasco zen faborito nagusia, hasieratik, lasterketa buruan joan zena, Etzegaraten, probatik erretiratu zen arte. Ez zen nekeagatik edota erorikorik izan zuelako erretiratu. Ordutegi aldaketak ez zion mesederik egin, izan ere, arrazoi pertsonalengatik erretiratu behar izan zen.

Hala, Maria Victoria Soler murtziarrak, lasterketa borobila eginda, jantzi zuen txapela. 21:52:13ko denbora behar izan zuen Ehunmilak probako 125 kilometroak osatzeko. Lehenengo aldiz hartu du parte murtziarrak Ehunmiletan, eta bidean izan zituen zailtasunak eta oztopoak gainditzeko izan zuen gaitasuna nabarmendu zuen. San Adrianera lehenengo iritsi zen eta hortik aurrera lasterketa buruan joan zen helmugaraino.

Bigarrena Eva Lizarralde oiartzuarra izan zen (22:16:46) eta hirugarren Cristina Bataller kataluniarra (22:17:43).

Taldeka

Eta taldeka, familia bereko hiru gizonezko izan ziren irabazleak. C.C. Luis Bailo taldea, Jesus, Juan eta Alfredo Bailo Bardor anaia zaragozarrek osatutakoa izan zen irabazlea (21:12:51). Helmugan kontatu zutenez, gorabeherak izan zituzten, Alfredo proba uztekotan izan baizen. Baina bere bi anaiek bultz egin zuten, egoera irauli eta helmugaraino iritsi ziren. Garaipena talde lanaren emaitza izan zen. ●

Aldaketek helmugaratzeak ere luzatu zituen G2Hn

BEASAIN— Eguraldi baldintza kaskarrengatik antolakuntzak hartutako erabakia izan zen Goierriko Bi Handiak trailaren irteera ere atzeratzea, Ehunmilak ultra trailarekin egin bezala. Ostiralean 23:00etan beharrean, larunbatean 19:00etan abiatu ziren eta Aralarren eta Aizkorrin barrena 90 kilometro egin ondoren, 05:50ean, Ander Iñarra lezotarra izan zen helmugara iristen lehena, 10:42:43 denbora osatuta. Iaz bigarrena izan zen Iñarra, 10:15.30 denborarekin.

Helmugara iristen hurrenak goierritarrak izan ziren. Atzetik aurrerako lasterketa eginez, bigarren iritsi zen Mikel Intsausti beasaindarra (11:09:49) eta hirugarren Aitor Zunzunegi legorretarra (11:22:29).

Ander Iñarraren esanetan, ordu aldaketak «zaildu» egin zuen G2H proba. Iaz bigarren egin zuen Iñarrak eta proba ezagutzen zuen, baina aitortu zuenez, ordutegi aldaketarekin «asko-asko aldatzen da lasterketa».

Kopetako argia Ganbotik behera basoan sartu zirenean piztu behar izan zuten. Hiru ordu inguru bakarrik egin zituzten egun argitan, hasierako hiru orduak. Lizarrustitik Etzegaratera bitartean lainoa izan zuten, «laino itxia, metro bat edo bi bakarrik ikusten zen, eta ezin korrika lasai egin. Ezin hankak luzatu, eta horrek muskularki gehiago nekatzen du».

Etzegaratetik aurrera hobeto jarraitu zuen. «Hala nola igo dut Aizkorri, baina Aizkorriko jaitsiera ere gauez zen, bestetan egunez egiten da, eta asko aldatzen da. Irristakorra zegoen, kontu gehiagorekin ibili behar da, nekea daramazu... Eta Andraitzetik behera beste horrenbeste. Horregatik atera da denbora hau».

Aurten podiumaren goren maila igotzea eta iazko arantza ateratzea lortu du.

Arantza kendu du Azazetak

Emakumezkoen arteko lehian, Olatz Azazeta altsasuarra izan zen Goierriko Bi Handiak trailaren aurtengo irabazlea Beasaingo helmugan. Iaz bigarren postua lortu zuen Azazetak, 12:39:13 denbora behar izan zuen 90 kilometroak osatzeko, eta aurten, bere esanetan, ordu aldaketak eraginda, ordubete pasa gehiago behar izan zuen helmugara iristeko (13:48:53), gizonezkoetan gertatu den bezala.

Bigarren sailkatua Raffaela Ciavola gasteiztarra izan zen (14:32:15) eta hirugarrena, Leire Martinez santurtziarra, minutu gutxiko aldearekin iritsi zen (14:46:45).

Lehenengo goierritarra eta lehen beasaindarra, Uxua Barandiaran izan zen (15:34:34), sailkapen nagusian seigarren postua lortuta. ● AV/LA



Ander Gerrikaetxebarria

EHM - 1. postua

BEASAIN— «Sentsazio guztiak izan ditut. Hasieran fuerte, gero Hernio eta Txindoki oso txarto beroagatik, baina apurka-apurka buelta eman eta azkeneko 8-9 orduak oso fuerte egin ditut. Egia esan, espektatiba gabe etorri naiz. Banekien indartsu nengoela. Baina presiorik gabe aritu naiz, eta horrelakoetan egiten ditut lasterketa onenak».●**AV**



Unai Dorronsoro

EHM - 2. postua

BEASAIN— «Oso gustura nago egindakoarekin, nahiz eta azkeneko momentuan Anderrek pasa, gainera banekien indartsu zetorrela atzetik, oso pozik nago bigarren postuarekin. Aldaketen ondorioz, proba azkarragoa izan da. Lehen kilometroetan ikaragarri sufritu dut, ez zelako nire gustuko terrenoa, baina indarrak ondo kudeatu ditut».●**AV**



Mikel Intsausti

G2H. 2. postua

BEASAIN— «Gogorra joan da aurtengo Goierriko Bi Handiak. Hasieran beroa eduki dugu. Gero berriz, behelainoa. Lizarrustitik aurrera ez zen ezer ere ikusten, poliki-poliki joan naiz track-ari jarraituz. Aizkorri aldea ere gaizki dago. Bustia zegoen harria, zatirik txarrena hori izan da niretzat. Gero buelta eman diot eta ondo».●**LA**



Aitor Zunzunegi

G2H. 3. postua

BEASAIN— «Iaz Marimurumendi maratoia egin nuen [bigarren bukatu zuen]. Aurten G2Hko dortsala neukan eta bost ordutik nola erantzun nuen ikusi nahi nuen. Sentsazioa? Nekea! Bero egin du eta gaua luze egin zait, batez ere Mutiloatik Beasainera artekoa. Gaur ez zait berriz ere errepikatzeko gogorik geratu, bihar ez dakit».●**LA**



Ainhoa Intxausti

MMM. 1. postua

BEASAIN— «Lehen 20 kilometroetan sufritu dut gehien, bigarren zatian aldiz, hobeto. Hala ere, hezetasun ugari eta sargori egin digu eta horrek bukaerarako ia denoi faktura pasa digu. Izugarria izan da, etxe inguruan, etxekoez inguratuta korrika egitea, beti da eta izango da plazer bat horrelako lasterketetan parte hartzea».●**LA**



Maider Unanue

MMM. 3. postua

BEASAIN— «Niretzat lehen maratoia izan da. Maratoia ez da nire distantzia, baina aitarekin batera egin dut, berak esperientzia handia dauka eta berari esker lortu dut bukatzea. Azkeneko 10km-ak luze egin zaizkit, baina gogorrena azkeneko jaitsiera izan da. Nekatuta, baina gustura nago emaitzarekin».●**LA**



Markel Urigoitia, Asier Azkarate eta Endika De las Heras helmugan. AIMAR MAIZ

Marimurumendin, errekorra

● Asier Azkaratek eta Markel Urigoitiak marka hautsi dute. Endika De las Heras, hirugarren.

● Ainhoa Intxaustik bigarrenez irabazi du. Maider Unanue hirugarrena izan da.

Loinaz Agirre

BEASAIN— Ehunmilak trilogiako azken proba, Marimurumendi maratoia, izan da berezko egunean eta orduan jokatu den lasterketa bakarra. Igandean, 08:00etan puntuan abiatu ziren 350 korrikalariak Agortara bidean. Proba bizia eta kalitatezkoa izan zen. 228 korrikalarik bukatu zuten Marimurumendi.

Asier Azkarate arrasatearrak eta Markel Urigoitia otxandiarrak elkarrekin egin zuten ibilbide osoa, hasieratik bukaeraraino. Helburua, iaz Samuel Davilak jarritako errekorra haustea zuten helburu, eta lortu zuten, bi minutuan hobetuz. Azkarate sartu zen lehena helmugan (3:37:42), Urigoitia bigarrena (3:37:43).

Endika De las Heras beasaindarra izan zen hirugarrena. Iazko postu bera lortu zuen, denbora aldetik, zortzi minutu eta erdi hobetuta. «Beste bi minutu gehiago hobetu nahi nituen, baina tripatako arazoekin ibili naiz».

Laugarren eta bosgarren postuan ere, beste bi goierritar gazte iritsi ziren: laugarren sailkatu zen Gaizka Lasa legorretarra (3:41:33), eta bosgarren Xabat Maiotz segurarra (3:43:35).

Ainhoa Intxausti bigarrenez

Emakumezkoena ere borrokatua izan zen, Ainhoa Intxausti segurarraren eta Alba Lorasen artean. Azkenean, 56 segundoko aldearekin iritsi zen segurarra lehen postuan, iazko postua berdinduz. Iaz errekorra jarri zuen Intxaustik (4:18:28), eta aurten bost minutu gehiago behar izan ditu 42 kilometroak osatzeko.

Intxausti gustura dago emaitzarekin: «Nire bigarren urtea izanda eta jakinda ez nuela prestatu lasterketa lehengo urtean bezala, lortutako emaitzarekin gustura nago». Lehen 20 kilometroetan «sufritu» zuen gehien. «Bigarren zatia aldiz, hobeto joan zitzaidan. Hala ere, hezetasun ugari eta sargori egin zigun eta horrek bukaerarako ia denori faktura pasa zigun». Zaleen laguntza eta babesa ere izan zuen segurarrak: «Izugarria izan zen, etxe inguruan, etxekoez inguratuta korrika egitea, beti da eta izango da plazer bat horrelako lasterketetan parte hartzea».

Bigarren postuan, Alba Loras (4:31:12) sailkatu zen, eta hirugarren postua Maider Unanue (4:43:49) aramarrarentzat izan zen. Irudi hunkigarria izan zen helmugakoa, Manu aitarekin batera sartu baitzen helmugan, elkar besarkatuz. Elkarrekin egin zuten maratoia aramarrek. «Maratoia ez da nire distantzia, baina aitak esperientzia handia dauka eta berari esker lortu dut», zioen lasterketaren amaieran Maiderrek. Azkeneko 10km-ak «luze» egin zitzaizkion, «baina gogorrena azkeneko jaitsiera» izan dela nabarmendu zuen.

Laugarrena, lehen beasaindarra, Maria Ezpeleta izan zen (4:48:22).●



Ainhoa Intxausti segurarra helmugan. AIMAR MAIZ

GOIERRIKO HITZA
2025eko uztailaren 15a, asteartea

EHUNMILAK

SAILKAPEN OROKORRA

1.	Ander Gerrikaetxebarria	15.04.06
2.	**Unai Dorronsoro**	**15.05.54**
3.	Fidel Fernandez	15.41.22
4.	Josu Azkune	16.18.37
5.	Josu Imaz	16.43.39
6.	Morgan Aubert	16.47.18
7.	**Koldo Galarreta**	**16.56.50**
8.	Iker Galarraga	18.37.45
9.	Jonatan Tejada	18.41.04
10.	**Aitor Garmendia**	**18.51.15**
11.	Juanjo de los Angeles	18.51.20
12.	Gabriel Valero	18.54.39
13.	Jon Gomez	19.14.26
14.	Lluc Maresma	19.20.06
15.	Javier Veliz	19.28.14

1.	Maria Victoria Soler	21.52.13
2.	Eva Lizarralde	22.16.46
3.	Cristina Bataller	22.17.43
4.	Maitane Arkarazo	23.54.37
5.	Martina Poelzelbauer	24.10.16
6.	Severine Duhalde	24.28.20
7.	Gloria Velilla	24.58.32
8.	Susana Zarraluki	25.49.25
9.	Emma Puchu	27.10.01
10.	Monica Guilera	27.25.17
11.	Sarah Stralenstam	27.54.47
12.	Maria Paula Paricio	27.59.53
13.	Vanesa Martinez	30:14:14

GOIERRITARRAK

2.	Unai Dorronsoro	15.05.54
7.	Koldo Galarreta	16.56.50
10.	Aitor Garmendia	18.51.15
16.	Harkaitz Zubeldia	19.29.33
17.	Ignacio Leon	19.35.00
20.	Josu Olano	19.52.02
22.	Eneko Dorronsoro	19.56.07
40.	Iñaki Okariz	21.27.33
49.	Asier Arozena	21.59.05
59.	Oskar Rodriguez	22.35.34

GOIERRIKO2HANDIAK

SAILKAPEN OROKORRA

1.	Ander Iñarra	10.42.43
2.	**Mikel Intsausti**	**11.03.49**
3.	**Aitor Zunzunegi**	**11.22.29**
4.	Jokin Garcia	11.35.19
5.	Aitor Garitagoitia	12.17.28
6.	Javier Manuel Peña	12.22.23
7.	Raul Gomez	12.25.44
8.	Ibai Goñi	12.29.00
9.	Eñaut Silbeti	12.29.08
10.	**Igor Etxeberria**	**12.31.58**

1.	Olatz Azazeta	13:48:53
2.	Raffaella Ciavola	14.32.15
3.	Leire Martinez	14.45.46
4.	Ane Zabala	15.00.29
5.	Nerea Azpiazu	15.14.33
6.	**Uxua Barandiaran**	**15.34.34**
7.	Argider Txurruka	16.41.10
8.	Mariona Collell	16.48.46
9.	**Maite Murgia**	**16.50.20**
10.	Ainara Arrizabalaga	16.53.38

GOIERRITARRAK

2.	Mikel Intsausti	11.03.49
3.	Aitor Zunzunegi	11.22.29
10.	Igor Etxeberria	12.31.58
11.	Garikoitz Bravo	12.40.48
13.	Xabier Molina	12.50.12
20.	Iñaki Maiz	13.15.58
21.	Andoni Jaka	13.22.36
32.	Ander Furundarena	13.43.38
35.	Xabier Irazustabarrena	13.43.39
36.	Ibai Beloki	13.45.08
40.	Kevin Lozano	13.54.08
41.	Aitor Mujika	13.54.08
42.	Gorka Aranburu	13.54.13
52.	Patxi Aldanondo	14.14.42
55.	Ander Ibarguren	14.25.11
63.	Iñaki Oiartzabal	14.38.23
65.	Xabier Dorronsoro	14.38.46
80.	Iraitz Valezquez	14.56.33

88.	Aimar Balerdi	15.05.25
89.	Ander Intsausti	15.05.26
90.	Joseba Artola	15.05.27
91.	Ekaitz Lekue	15.07.15
94.	Asier Bruno	15.07.29
99.	Joseba Suarez	15.13.15
106.	Aitor Martinez	15.24.01
109.	Endika Atienza	15.33.24
110.	Juan Antonio Escalera	15.33.33
6.	Uxua Barandiaran	15.34.34
134.	Patxi Iglesias	16.15.39
137.	Joseba Andoni Urbano	16.17.04
156.	Antonio Alonso	16.50.52
158.	Joseba Aldasoro	16.42.40
163.	Igor Otegi	16.49.20
9.	Maite Murgia	16.50.20
164.	Andoni Iparragirre	16.50.20
166.	Kevin Garcia	16.52.08
167.	Samu Benitez	16.54.42
193.	Jorge Prieto	17.26.43
194.	Roberto Tubia	17.31.39
195.	Josu Campos	17.32.22
201.	Iban Agirre	17.48.40
209.	Eneko Torres	17.59.59
210.	Eneko Zabala	18.00.34
214.	Jose Aparicio	18.08.15
220.	Aitzol Arruabarrena	18.25.27
228.	Xabier Oria	18.37.31
229.	Joseba Sarriegi	18.37.33
230.	Jon Mikel Mendia	18.40.23
231.	Juan Pastrian	18.40.23
236.	Julio Vidal	18.45.28
251.	Iker Hernandez	19.18.55
261.	Jon Lizarazu	19.40.03
262.	Luis Usabiaga	19.40.05
264.	Alvaro Lopez	19:47:59
265.	Hur Ezeiza	19:50:59
266.	Julen Mera	19:50:49
281.	Ruben Ramajo	20:33:29
282.	Unai Agirre	20:33:39
286.	Enaitz Lasa	20:38:52
300.	Ander Salsamendi	21.12.12
301.	Mikel Corredor	21.12.13
31.	Esther Ormazabal	21.33.40
35.	Olaia Martin	21:50:00

MARIMURUMENDI

SAILKAPEN OROKORRA

1.	Asier Azkarate	3.27.42
2.	Markel Urigoitia	3.27.43
3.	**Endika de las Heras**	**3.32.05**
4.	**Gaizka Lasa**	**3.41.33**
5.	**Xabat Maiotz**	**3.43.35**
6.	Xabat Manzisidor	3.45.49
7.	Andoni Gomez	3.53.40
8.	Julen Aramendi	3.56.40
9.	Aitor Mimentza	3.58.21
10.	Jon Beldarrain	4.01.05

1.	**Ainhoa Intxausti**	**4.23.50**
2.	Alba Loras	4.31.12
3.	**Maider Unanue**	**4.43.49**
4.	**Maria Ezpeleta**	**4.48.22**
5.	Lorea Totorika	4.49.38
6.	Henar Lazaro	4.57.24
7.	Marianne Rebouças	5.00.44
8.	**Ainhoa Goikoetxea**	**5.00.56**
9.	Ionica Chirculete	5.01.49
10.	Laura del Cerro	5.09.24

GOIERRITARRAK

3.	Endika de las Heras	3.32.05
4.	Gaizka Lasa	3.41.33
5.	Xabat Maiotz	3.43.35
13.	Ibai Urkia	4.04.09
14.	Josu Etxeberria	4.04.26
15.	Borja Gereñu	4.05.50
20.	Jon Garmendia	4.11.34
21.	Xuban Mantzisidor	4.12.54
23.	Iñigo Atxa	4.15.02
1.	Ainhoa Intxausti	4.23.50
36.	Gaizka Romero	4.29.25
42.	Asier Zubeldia	4.38.21
43.	Julen Gonzalez	4.38.29
45.	Aratz Olaizola	4.39.00
46.	Eneko Goikoetxea	4.39.01
51.	Odilo Rivela	4.42.59
52.	Josu Saiz	4.43.00
55.	Manu Unanue	4.43.49
3.	Maider Unanue	4.43.49
4.	Maria Ezpeleta	4.48.22
61.	Aritz Gonzalez	4.48.28
62.	Eneko Duran	4.48.48
63.	Manuel Somoza	4.49.04
64.	Endika Sanchez	4.49.32
65.	Eneko Mutiloa	4.49.45
74.	Hasier Mujika	4.57.00
82.	Asier Saez	5.00.45
83.	Manex Idiakez	5.00.56
8.	Ainhoa Goikoetxea	5.00.56
84.	Mikel Escalante	5.02.07
90.	Aratz Iraeta	5.05.26
91.	Iñigo Gotxikoa	5.05.38
95.	Ander Blanco	5.05.49
97.	Iker Urretabizkaia	5.07.15
98.	Jose Miguel Pellus	5.07.51
99.	Estanis Plasencia	5.08.32
101.	Beñat Imaz	5.10.38
104.	Josetxo Ugalde	5.12.29
108.	Asier Arostegi	5.14.15
12.	Uxue Arrese	5.14.58
114.	Ibon Altuna	5.19.30
118.	Jon Auzmendi	5.22.15
120.	Andoni Zubeldia	5.22.35
124.	Alberto Mella	5.24.19
16.	Naroa Arrieta	5.25.05
138.	Fran Garcia	5.35.31
139.	Javi Lopez	5.35.35
142.	Jose Mari Martin	5.37.01
148.	Aimar Blanco	5.40.44
20.	Laida Garmendia	5.40.44
150.	Eduardo Fernandez	5.41.26
155.	Beñat Garmendia	5.45.40
157.	Unai San Sebastian	5.48.25
158.	Markel Ruiz	5.48.56
26.	Haizea Tapia	5.49.01
159.	Angel Zabaltza	5.49.06
160.	Arkaitz Urkia	5.49.07
161.	Ander Zubizarreta	5.50.07
162.	Xabier Zaldua	5.50.17
27.	Elena Calvillo	5.52.38
28.	Ainhize Gorospe	5.52.38
172.	Beñat Martinez	5.58.20
173.	Aratz Salaberria	5.58.52
30.	Onintza Sukia	5.58.52
175.	Asier Aparicio	6.00.34
31.	Irene Sierra	6.01.50
177.	Arkaitz Rodriguez	6.01.51



Ehunmilak ultra traileko, Goierriko Bi Handietako eta Marimurumendi maratoiko sarituak, igandean, podium bateratuan. LIDE EGIZALA



Asteburua argazkitan

Marimurumendiko korrikalarien irteerako irudia. AIMAR MAIZ



Ehunmilak ultra traileko korrikalariak Usurben gora. LAIDA GOIBURU



Manuel eta Maider Unanue, aramar aita-alabak, helmugan. AIMAR MAIZ



Unai Dorronsoro EHMko txapeldunorde, Larraitzen gora. A.VIERBÜCHER



Mikel Valdivielso udal ordezkariekin tertulian. A.V.



G2Hko emakume korrikalarietako batzuk. A.VIERBÜCHER



Endika De Las Heras, Kizkitzan. A.I.



Beasaindarrak korrikalarien esperoan. ARIANE VIERBÜCHER



Boluntarioak lanean, osteguneko pasta party-an. A.VIERÜCHER

GOIERRIKO HITZA
2025eko uztailaren 15a, asteartea

Geltokietako auzoko jaietan giro bikaina izan da aurten ere. Festaren trenera igo diren urretxuarrek eta zumarragarrek Jai batzordeko makinistek prestatutako hiru eguneko bidaia zoragarriaz gozatu dute.

Ez dago tren hau geldituko duen ekaitzik!

1 Barrika lasterketan parte hartu zuen bikote bat. ASIER ZALDUA

2 Haurrak eta buruhandiak. ASIER ZALDUA

3 Haurrak, ostiral arratsaldeko ur pistola gudan. ASIER ZALDUA

4 Luis Miguel Asensio, patata tortilla lehiaketan irabazitako patata zakuarekin. ASIER ZALDUA

5 Jai batzordeko kideak, paella jaten. ASIER ZALDUA











Asteburuan geltokietako auzoko jaiak ospatu dituzte Urretxu eta Zumarragan. Festak bi herrietako gazte talde batek antolatzen ditu eta benetan txalotzekoa da egiten duten lana. Festaren trena gidatzeaz gain, trenera igotzen direnei bidaia alaitzen diete. Eta ez dago tren hori geldituko duenik. Ostiralean zaparrada galanta bota zuen, baina festa ez zen eten.

Ostiral arratsaldean ur pistola guda, txokolatada, partxis txapelketa eta trikipoteoa egin zituzten. Ondoren, herri afaria egin zuten, bakarrizketariekin. Afalostean, musika izna zen nagusi. Oilar Beltzak taldearen kontzertua bertan behera gelditu zen, ekaitza zela eta, baina programatutako gainontzeko emanaldiez gozatu ahal izan zuten.

Larunbat goizean toka txapelketa, zumba saioa, umeentzako jolasak eta Mobylette erakusketa izan ziren. Toka txapelketan Ino Ugarteburu nagusitu zen. Bigarren postuan Maier Artolazabal sailkatu zen eta hirugarrenean Jose Antonio Calvo.

Paella dastaketaren ostean, mus txapelketa eta bingo saioa izan ziren. Mus txapelketan Julen Andola eta Julen Jusdado urretxuarrak nagusitu ziren. Bigarren postuan Andoni Gabilondo eta Igor Dueñas sailkatu ziren, hirugarrenean Antonio eta Marta eta laugarrenean Unax Elorza eta Jon Tome. Sariak bikainak izan ziren: irabazleek 1.500 euro eraman zituzten, bigarrenek 600, hirugarrenek 300 eta laugarrenek 100.

Arratsaldean eta gauean musika emanaldiak izan ziren: Trapalata txaranga, Son de Rosas eta Zatekeen taldeen kontzertuak eta Dj Murirekin dantzaldia.

Igande goizean txistulariek jo zuten eta ondoren patata tortilla lehiaketa jokatu zen. Luis Miguel Asensiok irabazi zuen. Arratsaldean barrika lasterketaren lehen edizioa egin zuten. Asier Auzmendi eta Eneko Salvador nagusitu ziren. Bigarren postuan Alfonso Murillo eta Iker Fontes sailkatu ziren. Jaiak Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearen emanaldiarekin amaitu ziren. ●AZ



Ordiziako Plaza Nagusia, eta atzean, udaletxea, artxiboko irudian. IÑAKI GURRUTXAGA

«Onartezintzat» jo dituzte udal taldeek igandeko gertakariak

● Ordiziarren «festa egiteko eskubidea» ere aldarrikatu dute adierazpenean.

● Bi pertsona atxilotu ditu Ertzaintzak gertatutakoaren harira.

Laida Goiburu

ORDIZIA— Igande goizaldean gertatutakoa «onartezintzat» jo dute Ordiziako udal talde guztiek. Igande goizean eman zuen jakitera Segurtasun Sailak gizon bat atxilotu zuela Ertzaintzak Ordizian, ertzain batzuei eraso egiteagatik. Sailak jakinarazi zuenez, igande goizaldeko 00:18 inguruan izan zen gertakaria. Araba kalean hainbat pertsonaren arteko borroka baten abisua jaso zuten ertzainek, eta bertaratu zirenean, hiru gizon ikusi zituzte ihes egin nahian. Une horretan, beste hainbat pertsona ertzainei oldartu zitzaizkien, antza denez, euren lana bete ahal izateko oztopoak jarriz. Tentsioa areagotuz joan zen, eta gizon batek ukabilkada bat eman zion ertzain bati. Gizona atxilotu zuten agintaritzaren aurkako atentatua eta lesio delitua egotzita. Gertakariaren ondorioz, lau ertzain zauritu ziren.

Gerora, atzo goizean jakinarazi zuten beste gizon bat atxilotu zutela gertakari berari lotuta, eta atzo eguerdian Ordiziako alkate Adur Ezenarrok Bozeramaileen Batzordea deitu zuen urgentziaz gertakarien harira. Arratsaldean, udal talde guztietako bozeramaileen batzordean adostutako adierazpena kaleratu zuen udalak. «Onartezintzat» jo dute gertatutakoa. Agertu dute «errespetua eta erantzukizuna» eskatzen dituela bizikidetzak, eta «ez dela onargarria herritarren aurkako jarrerarik, inoren aldetik etorrita ere». Horrez gain, «larritzat» jo dute «ekintza horien ondorioz kaltetuak» egotea. «Jai giroan zebiltzan eta erasotuak izan ziren pertsonei, eta baita beren lana egitera bertaratu ziren eta erasotuak izan ziren segurtasun agenteei ere, elkartasuna adierazten die udalak».

«Ikerketa abian»

Ordiziarrek «beldurrik gabe bizitzeko eta festa egiteko eskubidea» dutela ekarri dute gogora, «eta eskubide hori urratzen bada, erantzule direnekiko beharrezko neurriak hartu behar» direla adierazi. «Zentzu horretan ikerketa abian da».●



Arazo teknikoak eta ekaitza Aramako II. Idi Pest-ean

ARAMA— II. Idi Pest jaialdia egin zuten ostiralean, Gaztaintxota Kultur Elkarteak antolatuta. Mugan taldeak jo zuen aurrena, baina Tapia eta Leturia Bandak ez zuen kontzertua amaitzerik izan, arazo teknikoak izan zituztelako lehenik, eta ondoren ekaitza hasi zelako. Oholtzatik jaitsi eta *a capella* aritu ziren. Argazkian, Mugan, Esanezin altzagarrarekin. HITZA



Mokela garaile kuadrillen arteko futbol txapelketan

ORDIZIA— Gauss eta Mokelaren artean jokatu zen larunbat goizean kuadrillen arteko futbol txapelketa. 2-0 irabazi zuen Mokelak. L.G

Profesionalen arteko pilota partidetarako sarrerak salgai, gaur eta bihar

ORDIZIA— Hilaren 26an, Egiguren V.-Erostarbe / Murua-Gaskue eta Altuna-Martija / Elordi-Zabaleta ariko dira Beti Alai pilotalekuan; irailaren 10ean, berriz, Altuna eta Artola buruz buru. Sarrerak gaur eta bihar egongo dira salgai, 18:00etatik, Jai-Alai pilota elkartean.

Goierriko HITZA, eskualdeko euskarazko egunkaria

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

HITZAkide

TXIKIA (82X64mm): 130 € Harpidedunak 65 €
HANDIA (124X64mm): 180 € Harpidedunak 90 €
ESKERTZA (38X64mm): 80 € Harpidedunak 40 €
ESKERTZA (Eskela jarri baduzu): 10 € (Harpidedun izanda eskela jarri baduzu): 5 € bez barne

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu. goierri@hitza.eus / Tel.: 943 16 00 56
GOIERRIKO HITZAn jarrita, Urola Kostako Hitzan, Tolosaldeko Atarian eta goierri.hitza.eus webgunean



Jesus Mari Erkizia Olaizola
'Jimmy'

Zestoan 2025eko uztailaren 13an hil zen, 59 urte zituela.

- Goian bego -

Haren gurasoak: Jesus Erkizia (†) eta Mª Luisa Olaizola (†); semeak: Iker eta Ibai; anai-arrebak: Agustin eta Eva Bilbao; Ines eta Andoni Eizagirre (†), Axun eta Xabier Arrieta; eta gainerako ahaideak.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Oharra: agurra familia artean emango zaio, eta ez da beilatokirik izango.

ZESTOAN, 2025eko uztailaren 15ean

asteartea,
2025eko uztailaren 15a

Tenperatura
19º / 15º

Goiza

Arratsaldea

Bihar
Goiza Oskarbi
Arratsaldea Oskarbi
Beroena 25º
Hotzena 11º

HITZA

GOIERRI

Harpidetza bidezko argitalpena
85 euro urteko.

Bezeroen arreta zerbitzua:
943 30 30 35

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak, E.M.
Lege Gordailua: SS-1052-04.
Egoitzak:
Beasain. Oriamendi, 32.
943 16 00 56. Eposta: goierri@hitza.eus
Urretxu. Iparragirre, 11. 943 72 34 08.
Editoreak: Iñaki Gurrutxaga eta Laida Goiburu.
Kudeatzailea: Miren Sudupe.
Publizitatea: aarrondo@hitza.eus 607 530 424.

Beasain:
647 319 749.
beasain@hitza.eus
Lazkao eta inguruko herriak:
688 864 200.
lazkao@hitza.eus
Aizkorpeko herriak:
674 034 344.
jzarandona@hitza.eus

Ordizia eta inguruko herriak:
607 554 094.
ordizia@hitza.eus
Urretxu-Zumarraga:
674 034 342.
urretxu@hitza.eus / zumarraga@hitza.eus
Legazpi:
647 319 752.
legazpi@hitza.eus

Goierriko Hedabideak EMko kideak

eta beste 15 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga.

goierri.hitza.eus

Agenda

ZINEMA

Beasain Gaur (17:30 eta 20:00), *Superman*, Usurbe antzokian.

ANTZERKIA

Legazpi Gaur (19:00), Hortzmuga teatroaren *Agurea, urpekaria eta itsasoa*, Euskal Herria plazan.

MUSIKA

Legazpi Bihar (19:00), Mingo Balaguer eta Iker Piris Agirre-Etxeberri parkean. Euriarekin, Azokan.

Farmaziak

Beasain Egunez: De La Cuesta. Zelaeta, 1. 943880587.
Ordizia Gauez: Pascual Gallego. Kale Nagusia, 40. 943881828.
UZ Egunez: Menendez. Gernikako Arbola, 3. 943720162 (U). Gauez: Sarria Ruiz (Z).

HITZAk *ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*



Gozotegia Segurako atarietako batean. LAIDA GOIBURU



Taberna bat eta tabernari eta bezeroak Segurako kale batean. L.G

Erdi Arora itzuli ziren Seguran

Laida Goiburu

● Erdi Aroko festa egin zuten larunbatean, goiz eta arratsalde.

● Hamar urteko etenaren ondoren berreskuratu dute festa.

SEGURA— Erdi Arora itzuli zen Segura larunbatean. Hamar urteko etenaren ondoren, Erdi Aroko festa ospatu zuten, goiz eta arratsalde, Harresitik karkabara Erdi Aroko elkarteak antolatuta, herriko gazte talde baten ekimenez. Antzeztoki erraldoi bilakatu zen herria bera, eta herritarrak aktore. 2015ean egin zuten azkeneko aldiz.

Kaleak eta eraikinak Erdi Aroko itxurarekin apaintzeaz gain, herritarrak garai horretako jantziekin atera ziren kalera. Lastoz bete zituzten kaleak, gaur egungo kartel eta seinale guztiak ezkutatzen ahalegindu ziren, eta gerturatu zenak seguru asko nabaritu zuen: une batez Erdi Aroko Segura ezagutzeko edo behintzat horren ideia bat egiteko aukera eskaini zuten egun batez inplikatutako herritar guztiek. Segurako arkitektura lagungarri izan zen, eraikin askok ez baitute apaingarri askorik behar garai horretara itzultzeko.



Bi gazte gari jotzen, larunbateko erakustaldian. LAIDA GOIBURU

Atarietan ofizio ezberdinak egon ziren ikusgai: gozogileak, mailegu emaileak, sendabelarren langileak, inkisizioa, tabernariak, noblezia.... Eta garaiko erakustaldiak egin zituzten, tartean, gari jotzea edo burukoen desfilea. Zaldunak ibili ziren herrian zehar zaldi gainean, eta umeentzako jolasak ere izan ziren. Erdi Aroko bizimoduak gaur egungoarekin talka egin zuen egun batez. ●



